

JARDUERA: XAGUXATAR PARKEA

HARTZAILEAK: HAUR HEZKUNTZA (3-5 URTE).

DENBORA: 30 min.

HELBURUAK:

- Xaguxatarren mundura hurbiltzea eta beraienganako duten irudi negatiboa baztertzea.

EDUKIAK:

- Xaguxatarrak, elikadura, animalia desberdinak, sentsibilizazioa.


METODOLOGIA:

- Bisitaldian, ugaztun hegalaria hauek ezagutuko ditugu, errespetatzen ikasiz eta beraienganako dugun beldurra kentzen.
- Xaguxatar baten presentazioa, umeei ezaugarri batzuk azalduz.

GIDOIA:

- Ongi etorria.
- Umeei azaldu nola egin ekintza: "XIXTO GURE LAGUNA".

JARDUERA: XAGUXATAR PARKEA



“XIXTO” GURE LAGUNA

KAIXO, ANIMALIA HAU XAGUXATARRA DA. “XIXTO” IZENA DU ETA GURE PARKEKO MASKOTA DA.

BERE FAMILIAREKIN AZPEITIKO XAGUXATAR PARKEAN BIZI DA. ZUEK JOLASTEN ARI ZARETENEAN TXUTXU-MUTXU ASKO ENTZUTEN OMEN DITU ETA KONTURATU DA EZ DITUGULA BEHAR BEZAIN ONDO EZAGUTZEN.

NOLAKOAK DIRENEZAGUTZEKO GAUZABATZUK KONTATUKO DIZKIZUET:

ANIMALIA TXIKIA DA, NAIZ ETA HEGAN EGIN, LUMARIK EZ DU ETA EZ DIRA ARRAUTZATIK JAIOTZEN. UGAZTUNAK DIRENEZ, AMAREN SABELETIK JAIOTZEN DIRA, JAIO BERRITAN AMAREN BULARRETIK ESNEA HARTZEN DUTE, ETA BERE GORPUTZA ILEZ ESTALITA DUTE. ARGITASUNA EZ DUTE GUSTUKO BAINA OSO ENTZUMEN ONA DUTE. INTSEKTUAK JATEN DITUZTE.

KOBA ZULOETAN, GANBARA ETA ZUHAITZ ZAHARRETAN BIZI DIRA.


BERE AZAZKALAK BEREZIAK DIRA, ZUHAITZETAKO ENBORRETAN ONDO HELTZEKO BALIO DUTE. ADARRETATIK ETA SABAIETATIK ZINTZILIK ORDU ASKO EGOTEN DIRA. NEGUTIK UDABERRIRA ARTE LO EGITEN DUTE.

JARDUERA: XAGUXATAR PARKEA


BERTAN 4 XAGUXATAR ESPEZIE DESBERDIN BIZI DIRA:



RHINO



MYO



PLECO



AURI

GURE JANARI GUSTUKOENA INTSEKTUAK DIRA.

BIDEAN ZEHAR, HAINBAT ZOMORRO TOPATUKO DITUZU ZORUAN MARRAZTUTA.

- EA ASMATZEN DITUZUN NOLA IZENA DUTEN ZOMORRO HAUEK.

ROKODROMOAN LAGUN BATEKIN "HITZ EGIN" ETA BERA ENTZUTEKO AUKERA DUZU.

- NOLA EGINGO DUZU HORI?
- LABERINTOAN SARTU ETA EA IRTEERA AZKAR TOPATZEN DUZUN.

